

Bezeroen asebetetzea, laneko segurtasuna eta osasuna, aurrezpena eta energia-eraginkortasuna, eta baita ingurumenaren babesa ere, JEZen produktu eta zerbitzuen elaborazioan lehentasunezkoak dira.

Hori dela eta, JEZek konpromisoa hartu du antolakuntza eta etengabeko hobekuntzaren testuinguruan oinarritutako Kudeaketa Sistema bat garatzeko, beharrezko baliabideak jarritz:

- ▶ Guretzat aplikagarriak diren legezko betekizunetan eta identifikatutako-araudietan ezarritakoa **betetzea**, eta borondatez ezarritakoak ere bai.
- ▶ Interesdunen beharrak eta aukerak **asetzea**.
- ▶ Gure langileak eta gure izenean lan egiten duten langileak **trebatzea, informatzea eta sentsibilizatzea**, kalitatezko produktua lortzeko; eta lan-arriskuak, ingurumen-inpaktuak identifikatu, kontrolatu, ezabatu edota murrizteko; eta gure jardueratik eratorritako energiaren kontsumo arduratsua egiteko ere bai.
- ▶ Fabrikan parte hartzen duten pertsona guztien babesa **ziurtatzea** eta beraien laneko baldintzak hobetzea, gertakariak gutxiagotuz eta osasunerako kalteak saihestuz.
- ▶ Jardueraren ondorio diren arriskuak **saihestea eta gutxiagotzea**, kasu bakoitzean beharrezko diren neurriak garatuz.
- ▶ Gure kudeaketa sistemaren eraginkortasuna etengabe **hobetzea**, gure bezeroen eta interesatuen gogobetetze maila asetzeko.
- ▶ Energetikoki eraginkorragoak diren produktu eta zerbitzuak eskuratzea eta energia-errendimendua hobetzeko diseinua **babestea**.

Helburu horiek lortzeko, honako hauek egin behar ditugu:

- ▶ Ez-adostasunen arrazoiak aztertu eta konpondu.
- ▶ Ingurumen-inpaktu handienak murriztu.
- ▶ Energia-errendimendua hobetu; batez ere gure jardueran esanguratsuak diren gasaren eta elektrizitatearen erabilera.
- ▶ Enpresako arrisku nagusienak murriztu.

Laudion, 2018ko apirilaren 16an

Urtsa Errazti CEO Bertrand Tenoux COO Michael Deckan CFO